



Heriotzaren Triangelua: Lehen biktimaren historia

David Salbador hernaniarra Andoaingo Plazaolako tren geltoki zaharraren inguruetan erail zuten, 1977an. Kasua argitu gabe dago oraindik / 2-3

Abiatzear da jabekuntza eskola Urnietan

Autodefentsa feminista, hilekoaren zikloaren erritmoa, asertibitate eta jabekuntza, maskulinitatea eta zaintza dira ikasturte honetarako ikastaroak. / 16



Babes zabala jaso zuten Asier Nieblaren etxekoek, Urnietan antolatutako ekitaldi sortan / 7



Gure Eskuk antolatuta, larunbatean 17:30ean manifestazioa Antiguatik abiatuta / 6



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenak Andoaingen abiatuko dira, asteburu honetan / 14

Jabetze Eskolak emakumeen jabetzea eta parte-hartze soziopolitikoa indartzeko

- Autodefentsa feminista
- Hilekoaren zikloaren erritmoa: 4 ilargiak gugan
- Aseritibitate eta jabekuntza tailerra
- Zainketa mintzagai: Zaindu eta nork bere burua zaindu
- Maskulinitatea

IZEN-EMATEA: Urriak 14-31

- 1. Bertan**
Aste-aste, 07:30-14:30. San Juan plaza
- 2. Lekaio**
Aste-aste, 09:00-13:00 / 16:00-18:00 (ostig arafasaldeztikita)
San Juan kalea 2/g
- 3. Gazte Informazio Puntua**
Aste-ostig, 17:00-19:00. Osti, 11:00-14:00
Idiazabal 13
- 4. urnieta.eus**
Web formulario bidez

URNIETAKO JABETZE ESKOLA 2019-2020





David Salbador, taxiaren ondoan. SALBADOR-SARASOLA FAMILIA

Xabier Lasa ANDOAIN

42 urteren ondoren kasuari bu-
ruzko zirkunstantziak argitu
gabe jarraitzen dutela eta eska-
tu zuen justizia Mikel Salbado-
rrek.

1977ko urriaren 6ko gauean,
45 urteko David Salbador Hernanin bahitu egin zuten. Hurrengo egunean, goizaldeko zazpietan, Plazaolako trenbideko geltoki zaharraren parean Andoni Izagirre apaizak hilda topatu zuen. Bere autoaren barruan zegoen, eta bi tiro garunean zeuzkan; hiru bat ordu zeramatzan hilik, autopsiaren arabera. Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) eskuin muturreko taldeak hartu zuen bere gain hilketa, ETAren konfidentea zela leporatuta.

Franco hil osteko trantsizioan Andoainen eratu zen Udalak ez zuen adierazpenik plazaratu gertakizunaren inguruan. Ez zuen jokatu, esate batera, ekainean bezalatsu, orduko hartan ETA(pm)k Javier Ibarra enpresaria Getxon bahitu eta erail zuenean gaitzespeneko adierazpena onartu baitzuen udalbatzan.

David Salbador Bernardo Bilbon jaio zen, baina Hernanira

Andoainen erail zuten Hernaniko taxi gidaria

David Salvador Hernaniko taxi gidaria Andoainen hil zuten 1977an; Triple A erakunde armatuak erreibindikatu zuen hilketa. Hernanin biktimen alde joan den urriaren 5ean egin zen ekitaldian, bere seme Mikelek justizia eskatu zuen

bizitzera joan zen 60ko hamarkadan. Juani Sarasola Garmendiarekin ezkondu zegoen, eta bi semearen aita zen, Mikel eta David.

Mikel Salbador Sarasola 10 urteko mutil koskorra zen aita galdu zuenean. Urtetan isilik egon ostean, azken urtetan hasi da adierazpenak egiten familiak

pairatutakoaren inguruan. 2015ean, Imanol Laburu eta Jose Mari Salinas zinegileen *Heriotzaren triangela* dokumentalean hartu zuen hitza lehenbiziko aldiz; heriotza baten aurrean haur baten ikuspegia azaldu zuen film hartan. Eta geroztik, Joseba Zabaltzak 2017an osatu zuen *Gogoan hartzeko izenak*

(Euskal Memoria Fundazioa) argazki-liburuan azaldu zen. Halaber, Andoaingo Udalak eta Oroituz elkarteak frankismoaren aurkako kereila aurkezteko asmoz elkarlanean ireki zuten Biktimen Bulegoan testigantza eman zuen 2018ko apirilean.

Mikelek ondo gordeta dauzka aitarekiko oroitzapena: “ideolo-

gia politiko jakinik ez zuen aita zen. Goxoa zen izaeraz, jendar-tekoa, lagunekin poteoan-eta ibiltzea gogoko zuena. Hernani herria, bere herritarrak, euskal kultura eta tradizioak maite zituen. Kirolari amorratua zen, eta pilotan txapelketak irabazitakoa zen bere anaiarekin batera”.

Amari egin zitzaion gogorren senarraren hilketa, jakina. “Ama oso gaizki, lur jota geratu zen, eta bi anaiok osaba-izebekin bizitu behar izan genuen bolada batean. Baina geroztik berriro hiruok elkartu, eta amak etxean aitaren memoria ondo bizirik mantendu zuen. Beti zentzu onean oroitzen zuen, aitarekin partekatutako bizialdiak, gertaerak, pasadizoak... hartuz ahotan. Senarra hil izanagatik amorrua eraman zuen berarekin beti, baina bi semeoi inoiz ez zigun mendekua edo gorrotoa transmititu. 2015eko irailean hil zen”.

“Heriotzaren triangela”ko lehen biktima

David Salbadorren heriotzaren ondorengo urtetan, 1981 urte bitarte, beste zazpi hilketa gertatu ziren Buruntzaldean, “Heriotzaren triangelan”: Jose Ramon Ansa (Andoainen, 1979/05/06), Tomas Alba (Astigarragan, 1979/09/28), Felipe Sagarna (Hernanin, 1980/04/19), Miguel Mari Arbelaz eta Luis Mari Elizondo (Hernanin, 1980/09/07), Joakin Antimasbere (Urdietan, 1980/11/14) eta Jabier Ansa (Andoainen, 1981/03/03).

Zortzi heriotza ez ezik, konta ezin ahala eraso eragin zituzten garai hartan ultraeskuindarrek: hilketa saiakerak, tiroketak baserri, etxebizitza eta elkarteetara, auto erreketak... Horietatik asko Andoainen. Zehazki esanda, Kaletxiki auzoan zein Andoainetik Urdietara doan G1-131 errepidearen bi aldeetan kokatzen diren Buruntza eta Leizotz baserri bailaratan.

Hain zuzen, Audientzia Nazionalak, 1984an, David Salbador ez beste zazpi pertsonen hilketen errudun deklaratu zituen Inazio Iturbide Piti eta Ladislao Zabala. Andoainen ekintza gehienak gertatu ziren inguru horretan bertan jaio eta hezitakoa zen Iturbide; estazioko zentralako etxean.

Sententziak ez aipatu arren, Salbador Sarasola familiak beti

uste izan du ultraeskuindarrekin Buruntzaldean burutu zuten kanpaina bortitzaren lehen hilketa izan zela aitarena. “Izua gizarte osora zabaltzea zuten asmoa, eta aitari “tokatu” egin zitzaion. Jarri zioten kolaboratzailearen etiketa justifikazio hutsa izan zen”.

Gaztetxoa izan arren, Mikel Salbadorrek gogoratzen du gizartean beldur fisikoa zabaltu zela nabarmen, 1977tik 1981ra bitarteko garai historiko hartan. “Batez ere 18 urtetik 40 urte bitarteko jendearengan piztu zen izua, ideologia batekoak zein bestekoak izan. Gauetan, jaietara-eta joatera ausartzen zen, bai, baina tentuz eta saiatur beste pertsonak ondoan zituela. Izan ere, hiltzaileek mezu jakin bat zabaltu zuten: edonor izan daiteke kolpatua”.

Estatu aparatuekin loturak

Mikel Salbadorrek bat egiten du bailaran nahikoa zabaltu zen sentsazioarekin: indar polizialen eta ultraeskuindar horien artean bazegoela lotura, babes zuzena eskainiz, konplizitatea agertuz, beste aldera begiratur... “Deigarria egiten da, adibidez, hiltzaileek, beti, beren jabetzakoa zen Seat 127 markako autoarekin nola ibiltzen ziren hara eta hona, Buruntzaldeko herrietan. Bost urtetan inpunitate osoz jardun zuten, autoa hartzen zuten baikoitzean hilketa bat edo erasoren bat burutzen zuten. Eta hori dena, nahiz eta ordurako Itur-

"HILTZAILEEK BOST URTEZ INPUNITATE OSOZ JARDUN ZUTEN BURUNTZALDEAN"

bide fitxatuta eduki, Donostian, Zornotzan eta beste zenbait tokietan inkontrolatu gisa ibiltzeagatik”.

Andoaingo Udalak ere bat egin zuen susmo horrekin orduan, eta Joxe Ramon Ansa Etxeberria hil eta biharamunean, 1979ko maiatzaren 7an, igandearekin, ez ohiko batzarra egin zuen. PSE, EE, EAJ eta EMK-OIC alderdiek hainbat puntuko mozioa adostu zuten aho batez. Hiru zatitan banatu ziren erabaki horiek. Lehendabizi, Ansa familiari samina eta elkartasuna adierazi zitzaion. Bigarren, herrian nagusi zen sentimendua jaso nahi zela adieraziz, talde faxistak atxilotzea eta estatuko instituzioen depurazio sakona exijitu zitzaion gobernuari. Hirugarren, azkenik, Udalak Andoaingo guardia zibilen kuartela hartu zuen jomugatzat. Hango kideen jokabide errepre-siboak argitzeko, bertako arduradunak ikertzeko eta horietako gaiztoenak herritik kanporatzeko, eta bertan geratzen zirenak alkatearen agindupean jartzeko eskatu zioten gobernadore zibilarari. Izan ere, salagarritzat jo zuten bertako guardia zibilen jokabidea (atxiloketak, torturak, jendea kalean jipoitzeak eta tirokatzeak...) zela medio.

Orduan Gipuzkoako gobernadore zibila zen Antonio Oiarzabalek, Jose Antonio Perez Gabarain alkatea eta zinegotziak gobernu zibilera deitu zituen. Epaitegietan Udalaren aurkako salaketa jartzeko asmoa agertu zien, baldin eta mozioan zein txostenean agertzen ziren salaketekin lotutako frogarik aurkezten ez bazuten.

Oiartzabali erantzunez, Andoainen batzorde ikertzaile bat sortu zen, eta herrian bizi zen

errepresio giroa ikertu eta argitan jartzeko txosten bat atondu zuen, 1979ko abenduan. Udalak eta AP eta UCD ez gainera-ko alderdi eta sindikatu guztiek sinatu zuten txostena; besteak beste, Inazio Maria Iturbide andoaingarra aipatzen zen, Andoaingo guardia zibilekin zeuzkan harremanak nabarmenduz.

Euskal Jaurilaritzaren menpeko Terrorismoaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak, Marixabel Lasa zuzendari zuenak ere, 2010ean argitaratu zuen txostenean, aipatu konexio horien inguruko bertsioa berretsi zuen. “Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GAL-el eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena” izenburua daraman agirian aipatzen denez, eskuineko elementuek eta Estatuko indar poliziekin lotura zuten indarrek terrorrea zabaltu zuten gizarteko hainbat sektore soziopolitikoetan 70 eta 80ko hamarkadetan, ekintza biolentoen eta hilketen eskutik. Eta gaineratzen duenez, orduko polizia aparatua garrantzitsuen tolerantzia eta konplizitatearekin jardun zuten elementu horiek.

Buruntzaldean talde ultraeskuindarren urtetako kanpaina bortitza 1981eko martxoan eten zen. Antzizu baserriko Jabier Ansa Zinkunegi hil eta hurrengo egunetan Inazio Iturbide eta Zabala atxilotu zituzten. Ordu-rako bi ekintzaileen ibiliak aski ezagunak ziren bailaran, eta gobernu zibileko arduradunei jakinarazi zitzaiezen nortzuk ziren heriotza eta minaren iragarle zen auto famatuaren jabeak.

Oharra: Azaleko argazkia 1981eko martxoan, Jabier Ansaren hilketa salatzeako manifestazioa. ANDOAINGO UDAL

ARTXIBOA. ©TRUCHUELO



Mikel Salbador eta Ane Muguruza, Hernanin egin zuten ekitaldian. KRONIKA

Hernanin egia eta justizia eske

Estatu terrorismoak eragindako biktimak gogoratzeko, Egjari Zor Fundazioak ekitaldia antolatu zuen Hernanin joan den urriaren 5ean, 40 urtez inpunitatea salatuz lelopean. Hernanin zazpi dira estatuko terrorismoak eraildako pertsonak: David Salvador (1977), Felipe Sagarna (1980), Migel Mari Arbelaitz (1980), Luis Mari Elizondo (1980), Joakin Antimasbere (1980), Rafael Goikoetxea (1984) eta Iñaki Astiasuinzarra (1985). Ekitaldian zehar, 1989an hil zuten Josu Muguruza diputatuaren alaba Ane Muguruzak eta Mikel Salbadorrek hitza hartu zuten. Hernanin banda parapolizialek eragindako minaren erantzukizuna inork hartu ez izana salatu zuten. “Ez dugu onartuko Estatuak praktikaturako biolentziak gehiago ukatzea kontakizun zehatz bat modu interesatuan elikatzeke”. Arxibatuta dauden David Salvadorren eta beste hainbat kasuak argitzeko dokumentu ofizialak argitara emateko eskatu zuten, aldi berean. “Ezin justifikatu daiteke Estatuko botereek terrorismoa baliatu izana modu guztiz zigorgabea giza eskubideak urratzeko eta erailtzeko, eta bitartean, guk jarraitzea egia jakiteko dagokigun eskubidearen jabe izan gabe. Gertakari askok dihardutelako oraindik Francoren garaiko Sekretu Ofizialen Legearen itzalpean. Exijitzen dugu, behingoz, desklasifikatuak izan daitezela gertatutakoa ezkutuan mantentzen duten dokumentu ofizialak. Exijitzen dugu krimenak argitu eta dagokionak bere gain hartu ditzala ardurak. Egin diezaiogun aurre Estatu terrorismoaren gaiari zintzotasun demokratikoarekin bizikidetzara erakitzen jarraitu ahal izateko”. Gogoan hartu behar da Madrilgo Gorteetan Amnistiaren Legea 1977ko urriaren 15ean onartu zela. Lege horren ondorioz, urte bereko urriaren 6a bitarte preso politikoen amnistia ezartzen zen, eta batik bat, galarazten zen Espainiako epaitegiek epai zitzaten 36ko kolpe militarrek eta diktadurak eragindako hilketak eta desagertzeak. David Salbadorren hilketa urriaren 7an izan zenez, legeak ez lioke eragin behar.

Aiurri.eus webgunea, eskualdeko orainkaria

Argazkiak, bideoak,
agenda, albisteak,
azken ordukoak...





Andoain.eus webgunearen gardentasun ataria. AIURRI

Gobernu taldearen erantzuna oposizioari

Ondasunak publiko egitearen aferari erantzun dio Udal gobernu taldeak, oposizioari

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko gobernu taldeko kide diren PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek, gardentasunaren atariaren aferan, EH Bilduri eta Elkarrekin Podemos alderdiei erantzun diete. Oposizioaren agerraldiarekin kritiko agertzeaz gain, urriko Udal batzarraldirako gaiari loturiko proposamena aurkeztuko dutela iragarri dute: "Argitu nahi dugu zinegotzi guztiek egin dugula, legeak agintzen duen moduan, legegintzaldian, barne araudi berria lantzen aritu ginela. Bilera horietan, ondasunak ar-

gitaratzeko eredu berri bat adostuko genuela erabaki genuen. Horregatik, legegaldi hasieran, alderdien artean adostu zen oraingoz ez zirela ondasunak publikatuko, EAJ-tik eredu berria aurkeztu bitartean, zeinean, gardentasuna, herritarren informaziorako eskubidea eta datu babesen legea bermatzen ziren. Urriaren 31ko osoko bilkurara eramango den ereduaz izatea espero da, ondasunen aitortpenak jendaurrean jar daitezen.

Gobernu honek, oposiziotik isurtzen den demagogia alde batera utzita, gardentasunean atzerapausorik ez egoteko konpromisoa adierazten du".



AIURRI

EAJ-PNVren balorazio positiboa

Aurreko astean Aintzane Oiarbide Errepide eta Azpiegitura saileko Foru Diputatuak A15, N1 eta herriko sarreraren arteko lotunea "arintzeko konpromisoa" agertu zuen. EAJ-PNVk poza agertu du, iragarpenarekin.

Defentsa pertsonaleko ikastaroak, abian

Zumbalokura elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu emakumeen defentsa pertsonalari begira, haur zein helduentzako eta bi orduetan zein bi egunetan burutzekoak

Xabier Lasa ANDOAIN

Shaka Defense metodologian oinarrituko dira ikastaroa desberdinak. Samira Talha hip-hop-eko dantzari eta kirolariak sortu zuen metodologia hori. "Defentsa pertsonala modu xume, eraginkor eta dibertigarrian ikasteko tekniken bilduma" dela adierazi dute Zumbalokurako arduradunek. "Emakumeari segurtasuna eta autoestimua, eta beraz, poztasuna eragiten dio", gaineratu dute. Shaka Defensek arte martzialeko teknika desberdinak jorratzen ditu, eta musika du lagungarri, "buruaren kontrola eta kontzentrazioa lortzeko".

Azken batean, koreografia desberdineko musika estiloek mugimenduak automatikoki egiten ikasten laguntzen dute, memoria erabiliz. "Behin mugimenduak barnaratuta eta automatizatuta, gorputza prest egongo da bat-batean erantzuteko edozein egoeratan".

Hiru kulturatik edaten

Arte martzialak umiltasunean, enpatian eta errespetuan oinarritzen direla kontuan hartuz, Shaka Defense hiru kulturetan oinarritzen dela baieztatu dute Zumbalokura elkarteak arduradunek.

"Afrikako kulturatik, enpatia hartzen du, hots, norberaren defentsarako soilik behar den biolentzia erabiltzearen printzipioa. Dance Hall kulturatik jarrerara eskuratzen du; izuak paralizatu egiten du emakumea maiz, eta horri aurre egiteko, Dance Hall erritmoak barruak husten laguntzen du. Eta azkenik, Hip Hop kulturatik umiltasuna da begiz jotzen duena; emakumeak ez baitu zertan erakutsi behar defenda daitekeela.

Ez da lehenengo aldia Zumbalokura elkarteak defentsa pertsonaleko ikastaroak antolatzen



Martina Chanca eta Irene Araujo ama alabak. AIURRI

dituela Shaka Defense metodologia oinarri hartuta. Orain hilabete batzuk egin zen horietako bat, eta txanda hartan Martina Chanca eta Irene Araujo ama-alabek parte hartu zuten. Beren iritzia zaldu digute:

Martina Chanca:

"Oso bizipen jakingarria izan zen Shaka Defense ikastaroa niretzat. Guztiz gomendagarria da, nahiz eta beharbada baten bati iruditu luzeegia eta intentsuegia dela eta ez duela merezi zure bizitzako aste buru oso bat horri eskaintzea. Kanean emakumeei sortu zaigun segurtasun faltagatik animatu nintzen, batik bat. Zoritxarrez, errespetu falta izugarria sumatzen den gizartean bizi gara, eta emakumeak ez gara eraso jasateko arriskutik libratzen. Ikastaroa alabarekin egitea are gozagarriagoa suertatu zen niretzat; izan ere, hark defentsa teknikak nola ikasten zuten ikusteak, niri ere segurtasuna erantsi zidan. Oso emakume ausartak ezagutu nituen ikastaroan, zer kontatua badaukatenak, eta elkarrengandik asko ikasi genuen".

Irene Araujo:

"Mundu guztiak dakien bezala, kaleak gero eta arriskutsuagoak bilakatzen ari dira, emakumeentzat batik bat, eta horrexegatik, ama eta biok ikastaroan izena ematera animatu egin ginen. Asko ikasi genuen ikastaroan zehar, zutik zein lurrean erabiltzeko moduko teknika erabilgarriak, errazak geureganatzen. Ikastaroaren amaieran, parte-hartzaile guztiek, batik-bat, geure buruarengan segurtasuna sentitu genuen. Defendatzen modu praktikoa ikasteaz gain, pertsona zoragarriak ezagutzeko aukera eman ohi dizute antzeko ikastaroek".

Ikastaroak, urrian zehar:

- Urriaren 24an: 16:30-18:30. Haurrentzat.
- Urriaren 25ean: 16:30-18:30. Haurrentzat.
- Urriaren 25ean: 20:00-22:00. Helduentzat.
- Urriaren 26/27an: 09:00-18:00. Helduentzat.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko: elkartearen egoitzan bertan (Kale Nagusia 9a), edo eta, 672670377 telefono-ra hots eginda.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Zorionak Andoain

Andoaindarrak zoriondu nahi ditugu, hondakinen sailkatze lana ondo egiteagatik: Uztailen %66,40ko gaikako bilketa lortu genuen, inoizko daturik altuena. Beste hitz batzuetan: Europak zehaztutako azken legedia ere gainditu dugu (%65eko gaikako bilketa 2035ean). Urte hasieratik gainerako langak ere gainditu ditugu pixkanaka (%50a, 2020rako, %55a, 2025erako eta %60a, 2030rako). Hori gutxi balitz, errefusa asko murriztu dugu: urtarrilean bildu ziren 203.030 kg-tik abuztuko (azken datuak) 112.580 kg-ra pasa gara. Bitartean, materia organikoaren bilketa izugarri hazi da: kaleko edukiontzi marroietan 2018ko abenduan 42.980 kg jasotzetik, maiatzeko 85.000 kg-tara. Eta merkataria eta sortzaile handien

organikoaren bilketa bereiztuari dagokionez, 2018ko abenduko 12.180 kg-tik maiatzeko 21.530 kg-tara, esaterako. Albiste onak izanagatik ere, ez dugu guardia jaitsi behar eta gaikako bilketa hobetzeko lanean jarraitu behar dugu. Zentzu honetan, udako festa bakar batean ere gaikako bilketako frakzio ezberdinetako edukiontzirik egon ez izana akats larri bat bezala ikusten dugu. Horren haritik, edukiontzietatik kanpo poltsak uztea saihestu behar dugun ekintza bat da, edota

UZTAILEAN %66,40KO GAIKAKO BILKETARA IRITSI GINEN ANDOAINEN, INOIZKO DATURIK ALTUENA

organikoa poltsa konpostagarrietan ez botatzea, plastikozkoetan baizik. Gogoratu beharra dago hondakin organikoa soilik poltsa konpostagarrietan edo granelean (konpostagarria ez den poltsa barruko materia organikoa edukiontzian zuzenean hustu eta poltsa ez konpostagarri hori dagokion edukiontzian bota) bota daitekeela, edukiontzi marroian. Gogoan hartu Atarian (herritarren arreta zerbitzua) dohainik banatzen direla poltsa konpostagarriak.

EDUKIONTZIETATIK KANPO POLTSAK UZTEA SAIHESTU BEHAR DUGUN EKINTZA BAT DA

Poltsa konpostagarrien banaketa hobetzeko lan egingo dugu, horien banaketa ordutegia zabaldu eta herriko zenbait puntutan banatzeko makinak jartzeko herritarren eskura, beste udalerri batzuetan bezala. Azkenik, adierazten dizuegu irailen zehar alderdi guztiekin bildu ginela eta zenbait proposamen helarazi genizkiela: poltsa konpostagarrien banaketa hobetzea, festetan gaikako bilketa burutzeko edukiontziak jartzea beti eta gaikako bilketa hobetzeko pausu ezberdinak ematea. Azken hori bereziki garrantzitsua dela deritzogu, geroz eta gaikako bilketa altuagoa izan, orduan eta gutxiago ordainduko baitugu. Ingurumena hobetzeaz gain.

Garapena datu bidez

Errefusa:
203.030 Kg. Urtarrila, 2019
112.580 Kg. Abuztua, 2019

Materia organikoa:
42.980 Kg. Abendua, 2018
85.000 Kg. Maiatza, 2019

Sortzaile handiak:
12.180 Kg. Abendua, 2018
21.530 Kg. Maiatza, 2019

Gaikako bilketa:
% 50,68 Urtarrila, 2019
% 63,20 Otsaila, 2019
% 66,40 Uztaila, 2019
% 62,64 Abuztua, 2019

*Iturria: Mankomunitatea

andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzaila: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietak).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

Aiurri eskuragarri:
Ebeez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Aiurri ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALJATUAK:**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Astelehen iluntzean San Juan plazan egin zuten elkarretaratzea. Rosa Elosegik eta Pello Lozanok irakurri zuten Gure Eskuren adierazpena. **AJURRI**

Kataluniarekin elkartasuna

Urnietan, Andoainen eta Euskal Herri osoan zehar elkarretaratzeak deitu zituzten astelehenean, Kataluniako gizarte eta politika mailako ordezkarien aurkako sententzia salatzen. Bilkura horien deitzailea Gure Esku Dago ekimena izan zen



Andoainen Goikoplazan elkartu ziren. **AJURRI**

Gure Esku mugimenduaren adierazpena

Demokraziaren aurkako eraso larria da gaur Espainiako Auzitegi Gorenak jakinarazi duen epaia. 9 eta 13 urte arteko espetxe zigorra ezarri die, orotara, urriaren 1eko erreferendumarengatik bidegabeki akusatutako Kataluniako buruzagi sozial eta politiko subiranistei.

Epaia ez ezik, prozesu judiziala bera ere ez da justua izan; arbitrariotasunez beteta izan da, funtsik gabeko akusazioetan oinarritu da, eta behin-behineko espetxealdiarekin presoaren eskubideak urratu dira, Nazio Batuen Erakundeko Atxiloaldi Arbitrarioei buruzko lantaldeak salatu duenez. Horregatik, epaiketa politiko honen amaiera justu bakarria absoluzioa zela ozen aldarrikatu dugu hilabeteotan Kataluniako, Euskal Herriko eta Espainiako zein, oro har, nazioarteko milaka aholkari; baina hilabete luzeetan aurreikusi duguna berretsi du Espainiako estatuak: larrialdi demokratiko batean gaude.

Zigor epai honek ate handi bat zabaldu du eskubide zibil, politiko eta kolektiboak kriminalizatzeko: manifestazio eskubidea,

adierazpen askatasuna, protestarako eskubidea, bozkatzeko eskubidea edota autodeterminazio eskubidea. Kriminalizazio hau erabat onartezina da. Oinarritzko eskubideak erabiltzea ezin da delitua izan demokrazian. Alderantziz, botere publikoen ardura da haien erabilera bermatzea.

Erreferenduma kriminalizatu du Espainiako Auzitegi Gorenaren epai honek. Ez gaude ados. Erreferenduma tresna demokratikoa da, herri edo komunitate baten etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitze bali duena. Etorkizuna erreferendum bidez erabakitzea eskubide demokratiko bat da. Euskal Herrian, legeztatuta ikusi nahi dugu, eta erabili nahi dugu.

Izan ere, etorkizuna erreferendum bidez erabakitzearen aldeko herri ekimen bat lantzen ari gara hainbat eragile, erabakiaren bidea ireki nahi dugulako. Horregatik diogu, ebazpen honen aurrean, gure helburua berretsi baino ezin dugula egin: gure etorkizuna erreferendum bidez erabaki nahi dugu, eta hori lortzeko bidean ez dugu

atzera egingo. Horregatik, erreferendumaren aldeko herri ekimena lantzen ari gara, eta aurrera jarraituko dugu: aurrera egingo dugu herri gisa, eta aurrera, beti, Kataluniarekin.

Zigor epai honekin, Altsasuko gazteen aurkako sententziarekin, errepresioarekin eta 155. artikulua ezartzearen mehatxarekin beldurturik nahi gaituzte, etsirik, burujabetza asmoak lortzeko itxaropenik gabe. Baina oker daude. Gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu, zilegi delako, eskubide demokratiko bat delako. Ez izan zalantzarik, bidea irekiko diogu erabakitze eskubideari, gure estatus politikoa libre eta demokratikoki erabakitzeari. Aurrera egiteko ilusioa eta determinazioa dugu.

Injustizia baten aurka, eta oinarritzko eskubideen alde mobilizatu gara gaur. Erreferendumaren kriminalizazioaren aurka,

ETORKIZUNA ERREFERENDUM BIDEZ ERABAKI NAHI DUGU, ETA HORI LORTZEKO EZ DUGU ATZERA EGINGO

eta herrien eskubide kolektiboaren alde. Errepresioaren bidearen aurka, eta elkarriketa eta konponbide politikoaren alde. Gaur mobilizatu gara, eta mobilizatzen jarraitu beharko dugu. Datorren larunbatean, urriaren 19an, manifestazio nazionala egingo dugu Donostian, auziko presoaren askatasunaren alde, oinarritzko eskubideen alde eta herrien eskubide kolektiboaren alde. Elkarrekin. Kataluniarekin bat eginik.

Azkenik, gure elkartasuna eta berotasuna adierazi nahi diegu epai honen bidegabekerien ondorio larriak pairatu behar dituztenei eta haien senideei. Besarkada estu bat zuentzat. Aske nahi zaituztegu.

Eta besarkada estu bat ere Altsasuko gazteentzat eta haien senideentzat. Altsasukoak ere aske nahi zaituztegu! Nahikoa da! Bidegabekerien aurrean, beti elkartasuna. Oztopen aurrean, irudimena eta ahalegin kolektiboa. Erreferenduma ez da delitua. Defenda dezagun gure erabakitze eskubidea.

Gure esku dago. [Herriz herri, 2019ko urriaren 14an irakurri zen adierazpena]



Emozio handikoa izan zen larunbat arratsaldeko ekitaldia. AIURRI

Asier Nieblaren aldeko malkoak

Emozioari eusteko lanak izan ziren Urnietan, larunbat arratsaldean. Asier Niebla Martinez herriko gaztearen heriotzaren lehen urteurrenarekin bat eginez, haren lagunek omenezko martxa antolatu zuten. Jendetza elkartu zen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Ez da bakea hain azkar iritsiko Niebla-Martinez familiaren etxera. Iazko urritik Asier etxeko txikiena faltan somatzen dute, eta hutsune hori lazarria da. Eraso bortitza jasan zuen, eta bi hilabetez borrokan aritu eta gero, Donostiako Ospitalean hil egin zen. Geroztik, Urnietako familia minez bizi da. Egoera lanbrotsu horretan, justizian bilatu dute argitasuna. Justizia nahi dute, Asierren heriotza berriro errepika ez dadin.

Min hori baretu ahal daiteke, tarteka. Joan zen larunbatean, adibidez, min sakon hori ordu batzutan behintzat baretu ahal

izan zen. Eta minaren orde ez emozioa nagusitu zen. Urnietar eta gipuzkoar asko hurbildu ziren Asierren aldeko lasterketa eta martxara. Txaloak eta txaloak jaso zituzten, herritar askok euren minarekin bat egiten dutela adierazteko. Joana Nieblak eskertza adierazi nahi izan zuen, baina mikrofonoaren aurrean esaldiak lotzea kosta egiten zitzaion. Ezarrian korapiloa, eta malkoei eutsi ezinik, halaxe zeuden senide guztiak. Eta baita ikusle asko ere.

Hitzez ezin dena, musikaren eta artearen bidez bikain azaldu daiteke. Juanjo anaiak –musikaren munduan Nima ezizenez

ezaguna– kantua egin dio. Megafonian ipini zuten, eta taula gainean arrebarekin besarkatuta abestu zuten. Iluntasunetik argira doazen hitzak dira, eraserkia modukoa den doinuaren gainetik konposatutakoa.

Artea injustizia salatzeke ere baliagarria da. Larunbatean taula gainean ate bat zegoen; artelan bilakatutako atea. "Asierren atea" izenekoa da, Sandra Garayoak eginikoa. Erakusketa oso baten pieza da, indarkeria matxistaren biktimei eskainitakoa. Omenaldia amaituta, Nieblatarren erronka berria abiatu da: Epaiketa hasten denean justizia egitea aldarrikatzea.

Malkoak, txaloak eta aldarrikapena



Ehunka lagun elkartu zen Urnietan, larunbat arratsaldean. AIURRI

Jendetza Txaloak zentzu ugari hartu zuen larunbat arratsaldean. Justizia aldarrikatzeko modua izan zen, baina baita elkartasuna eta berotasuna adierazteko keinua ere. Senideek herritarren berotasuna jaso zuten, martxa osoan zehar.



Pankarta udaletxean eskegi zuten. AIURRI

Aldarrikapena Asier Nieblaren lagunek antolatu zuten larunbat arratsaldeko ekintza sorta. Urnietako Udalak beharrezkoa laguntza eskaini zien. Omenaldi ekitaldia izan zen, baina baita aldarrikapenarena ere. Justizia eskatzen dute.



Lasterkariak sari-banaketa ekitaldian. AIURRI

Lasterketa eta martxa Ehunka lagun elkartu zen San Juan plazan, elkartasunezko martxa eta lasterketa egiteko. Asier Martinez eta Gema Tejero nagusitu ziren lasterketan. Martinezek, kamiseta helduz eta eskuak luzatuz, Asier Nieblari eskaini zion garaipena.


Jaiak bideo eta irudi bidez



Bideoa | Arzallus eta Egaña bertsotan



Argazki-bilduma | Gau sorpresa



Bideoa | Zaldi lasterketa



Argazki-bilduma eta bideoa | Giza proba



Lagun giroan hasi eta amaitu zen giza proba. Argazkian, bi taldeetako partaideak. **AIURRI**

Auzotarren esku jokoan ziren 1.600 euroak

Julen Gabirondoren taldeak irabazi zuen Xoxokan, larunbat eguerdian jokatu zen giza proba, 62 plaza eta 21,5 metro eginda. Jon Otegiren taldeak 61 plaza eta 11 metro egin zituen. Ikusmin handia piztu zuen desafioak, jendetza hurbiltzea lortu baitzuten

Xabier Lasa URNIETA

900 kiloko bi harritzar 12 minutuko bi txandatan eraman behar izan zituzten arrastaka. Desafioaren albistea ahoz aho zabaldutako eta Xoxokako plaza txiki geratu zen. Alde batetik, auzotarrak, Julen Gabirondo eta bere sega taldea. Eta beste aldetik, Jon Otegi eta bere taldea.

Hasiera batean, 1.000 euro baziren ere, azkenean 1.600era igo zuten apustua. Lehia biziaren ostean, auzotarrak nagusitu ziren.

Irabazleena talde gorritxoak izan zen. Tiratzaileak hauek izan ziren: Beñat Telleria, Jon Etxeberría, Iñaki Peñagarikano, Urtzi Irazusta, Suharri Irazustabarrena eta Julen Gabirondo. Iker Manterola eta Gorka Etxeberría ordezkioak izan ziren, eta Imanol Etxeberría erakustaila.

Berdez jantzita, berriz: Unai Urruzola, Zigor Salaberria, Joxe Luis Garaia, Suharri Rodríguez, Mikel Arsuaga, Gorka Susperregi eta Jon Otegi. Peio Saizarrek erakustaila gisa jardun zuen.



Proba gogorra izan zen, bi taldeentzat. **AIURRI**



Lehertuta bukatu zuten desafioa. **AIURRI**



Otegi, Aldunberri, Arruti eta Goenaga sega desafioa amaitu eta gero. AIURRI

Aldunberri eta Goenaga nagusitu ziren

Zazpirehun m²ko lursaila mozteko ariketan, Aitor Aldunberrik eta Beñat Goenagak 24:15 minutuko denbora behar izan zuten. Lehia bizia izan zen, eta segundu gutxira amaitu zuten Manex Otegi eta Beñat Arrutik. 24:55 minutu behar izan zituzten

Xabier Lasa URNIETA

Lau gazteak segarekin entrenatzen orain pare bat hilabete hasi baziren ere, erraztasun handia erakutsi zuten. Belarra txukun eta azkar ebakitzen zuten. Ahalegin betean ibili ziren laurak, eta zaletuek txalo zaparrada eskaini zieten. Denborak ikusita, lehia estua izan zen. Bukaerara arte emozioa izan zen, bi bikoteen arteko alde segundu gutxikoa baitzen.



Goenaga, lehen planoan. Atzean ditu Aldunberri eta Gabirondo. AIURRI



Telleria, Etxabe eta Iruretagoiena parte hartzaileak. XOXOKA

Elosegi eta Iruretagoiena urnietarrak zaldi lasterketan

Larunbat goizean Xoxokara hurbildu zirenek zaldi lasterketa ikusgarriaz gozatzeko aukera izan zuten

Erredakzioa URNIETA

Xoxokako plazan partaideen eta zaldien aurkezpena egin eta gero, asfaltatu berri dagoen errepide zoruan bi kilometro eta erdiko lasterketa egin zuten. Beatsaburitik abiatu ziren, eta partaideak azkar batean iritsi ziren Xoxokako plazara. Hauexek izan ziren lehen hiru sailkatuak:

1. Xanti Telleria eta Henry Bound zaldia.
2. Ander Iruretagoiena eta Euxebio zaldia.
3. Eneritz Etxabe eta Coronel Sponz zaldia.

Antolatzaileek grabaturiko bideoa Aiurri.eus gunean ikus daiteke. Ez da bereizmen handikoa, baina lasterketaren abiaduraren adierazgarria da.

Errepidean izan arren, partaide ugari hurbildu ziren Xoxokako lasterketara. Eta parte-hartze horrek berarekin ikuslego kopuru handiagoa ekarri

zuen. Gipuzkoa osoko partaideak elkartu ziren irteeran:

- Iker Elosegi (Urnieta) + Aliolien (7 urte).
- Ander Iruretagoiena (Urnieta) + Euxebio (12 urte).
- Luis Rafael (Lasarte) + Prince Dino (9 urte).
- Gaizka Zendoia (Lasarte) + Colin Spres (4 urte).
- Xanti Telleria (Lasarte) + Henry Bound (7 urte).
- Eneko Urbietia (Zumaia) + Ving Neuf (5 urte).
- Eneritz Etxabe (Zumaia) + Coronel Sponz (4 urte).
- Danel Olano (Zumaia) + Yali (15 urte).
- Maria Tamayo (Zumaia) + Thompson (4 urte).
- Alexia Lucas (Oiartzun) + Dagoberto (8 urte).
- Aritz Fernandez (Oiartzun) + Presuntuoso (8 urte).
- Iñaki Bueno (Oiartzun) + Yermo (8 urte).

Auzoko jai batzordearen balorazioa

Jaiak igaro berritan, balorazioa egiteko garaian, zeri erreparatu nahi diozue?

Asteburuari begira, bereziki, egitarau oparoa genuen eta Xoxokan eguraldia jaia erabat baldintzatzen iritsi daiteke. Aurten lagun izan dugu, eta oso pozik gaude jende asko inguratu delako. Bertako jende asko, baina kaletik ere hurbildu zaizkigu. Oro har, sortu den giroarekin oso pozik gaude. Are gehiago, ezbeharrik edota egoera txarrik ez delako sortu.

Lanez gainezka ibiliko zarete, jaietan.

Astlehenean eta asteartean ez hainbeste, baina asteburuan bai. Ekitaldi asko dira eta gauza gehienak gure esku izaten dira. Segur apustua, adibidez, gutako lau kidek antolatu zuten. Asteburuan zehar mahaiak jarri, tabernan egon... lan asko pilatzen zaigu.

Jaien antolakuntza aurrera eramateko talde txikia izango zarete. Auzotarren laguntza ezinbestekoa izango zaizue, ezta?

Talde eragilean hogeitahogeita hiru lagun gaude, eta jaietan auzotar asko laguntzera hurbiltzen zaizkigu. Besteak beste, herri afarian edota sagardo dastaketan.

Auzotarrek, oro har, laguntza handia eskaintzen dute. Jaien aurreko igandean baserri baserri dirua biltzen ibili ohi gara, eta ekarpen ekonomiko hori garrantzia handikoa da. Modu batera edo bestera, auzoko jende askok laguntza ematen du.

Ekitaldi arrakastatsuak antolatzea ona da, baina horrek berarekin eragozpenak sor ditzake. Trafikoan, esaterako.

Zoritxarrez, horrelakoak gertatzen dira. Nahikoa lan izaten dugu ekitaldiak antolatzen, akaso hobeto pentsatu beharreko zerbait da.

Zer gehiago adierazi nahi duzue?

Jai batzordearen izenean, modu batera edo bestera jaia antolatzen lagundu duten auzotar guztiei eskertza adierazi nahi diegu. Aipamen berezia Ander eta Maite zaldi lasterketaren antolatzaileei, egitasmo berria proposatu eta aurrera eraman dutelako. Eta Juleni eta giza probako antolatzaileei ere esker berezia, horrelako ikuskizunak auzoan bertan antolatzeagatik.



Espainiako Vueltako helmugako argazkia ikono bilakatuko da, Mikel Iturriak lortu zuen garaipena sekulakoa izan baitzen. RTVE

“Nire garaipenik handiena ez etsitzea izan da”

MIKEL ITURRIA EUSKADI MURIAS TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Komunikabideen eskaera eta omenaldiak atzean utzita, Vueltako garaipena hazten jarraitzeko baliatu nahi du. Erabakita du non ariko den 2020an

Andoni Urbistondo URNIETA

Patxadak bizkar eman dio Mikel Iturriari azken asteetan (27 urte). Aiurriko elkarriketa egiteko Besabi aukeratu du, baina han bide lanetan ari dira. Xoxokan, ahateak oihuka, luzez egon da galderak erantzuten. Betikoa da. Arrakastak ez du aldatu, eta dagoeneko 2020ari begira dago. **Vuelta bukatu zen, baina azken bi aste hauek nekagarriak izan dira.** Politia izan zen irabaztea, baina ondorengo guztia luze egin da,

astuna. Garaipenaren eguna bera erotzeko modukoa izan zen, ezin izan nuen atsedetik behar bezala hartu, eta Vueltako bigarren erdian ordaindu egin nuen, oso gogorra egin zitzaidan. Etxera etorrita atsedena hartzea espero nuen, baino jaleoa ez da eten. Baina beno, ari gara, pixkanaka, gorputzari buelta ematen.

Halako oihartzunik espero al zenuen? Zerbait edukitzea espero duzu, noski. Hotelera iritsi eta sake-

lakoa hartu nuenean ezin izan nien mezu guztiei erantzun, ehunka mezu eta jakinarazpen nituen. Bakarren batzuk erantzuteko daukat oraindik.

Etxera etorrita, Gipuzkoan dauden agerkari guztietan elkarriketatu nautela esango nuke. Vueltako etapa garaipen batek hori dakar, eta onartu beste erremediorik ez daukazu. Hala, koak pasatzea merezi du Vueltako etapa garaipen batengatik bada.

Zenbat elkarriketa eman dituzu azken egunetan?

Kontua galdu dut, dagoeneko. Momentuan hainbat telebista elkarriketa egin nituen, Urdazubin. Espainiakoa, nazioarteko seinalea, irratiak, egunkariak... Urnietako plazan inoiz baino gehiago egon naiz azken bi aste hauetan, komunikabide ezberdinetako argazkilariekin bertan egiten nuelako hitzordua.

Zertan aldatu da Urdazubi aurreko eta Urdazubi ondorengo Mikel Iturria pertsona?

Uste dut ez naizela ezertan aldatu. Pertsona berdina naiz. Alboroto asko eduki dut, bai, baina gauzak normalduta, betiko martxa berreskuratu dut.

Zorion mezu politik jaso zenituen tropelean.

Bai. Niretzat Nairo Quintanak zoriontzea, edo Thomas de Gendte bostekoa ematea pentsaezina da. Beraien alboan korritzeko aukera hutsa izatea sekulakoa da, niretzat, ba pentsa beraien zorion keinua jasotzea. Urdazubi osteko etapan ia tropel osoak zoriondu ninduen, polita izan zen.

Luze gogoratuko duzun zorion mezuren bat bai?

Bat aukeratu baino, tropelaren errespetua sentitu izana baloratzen dut gehiago, nik neuk nire ahaleginari esker irabazitako errespetua.

Noiz lortu zenuen intimitate apur bat, egin zenuenaz jabetu ahal izateko?

Garaipena lortu nuen gau horretan apenas hartu ahal izan nuen atsedena, burrunban sartuta segitzen baituzu. Gero lasterketak bere martxa darama, eta ez daukazu tarte handirik hausnartzeko edo lasai egoteko. Burgosen, bigarren atsedena egunean, arratsaldean lasaitu nintzen apur bat. Masajea hartu eta Eurosport katean etapa bukaera ikusi nuen lehen aldiz, azken 26 kilometroak. Askok gozatu nuen irudiak ikusten, eta irabazi egingo duzula jakinda, ba are gehiago.

Zer sentitzen du etapa garaile batek garaipen horren errepikapena ikustean?

Oilo ipurdia jartzen zaizu. Ikusteko polita, gertatu zena zehatz-zehatz ez bainekien. Emozioa azken unera arte, zer pasako zen jakinda ere.

216 dortsala, zurea, inoiz baino gehiago agertu zen etapa hura irabazi eta gero.

Beno, kasualitatea izango da. Lehen erdian ez nintzen tropelaren atzealdean agertzen, eta etapa irabazi eta gero bai, nahiko nekatua nindoalako. Azaltzekotan, hobe tropel edo lasterketa buruan azaltzea, baina azaltzea ere garrantzitsua da.

Ez da Vuelta erraza izan zuretzat, ez zeneukan margen handirik arrakasta lortzeko, Oscar Rodriguez talde burua babesteko zeregina eman zizutelako, ihesaldietan sartzeko aukera mugatuz.

Bai, lotuta ikusten nuen nire burua lehen hamar egunetan. Aukerak pasatzen ikusten nituen, eta horiek ezin dira errekupearatu. Urdazubiko etapa berezia zen, ezagutzen nuen bidea, eta Jon Odriozola kirol zuzendariari esan nion, protagonista izan nahi nuela, ihesaldia bilatzen saiatuko nintzela, eta hala egin nuen. **Nola izan zen etapa garaipeneko intraistorioa? Ze izpegin pixka bat atzera geratu zinen, Otsondon ere ustez aukerarik gabe, oster aurreko taldetxoan sartzeko...**

Beno, Izpegitik laugarren pasa nintzen, nahiko aurrean. Indartsu sentitu nintzen. Gorka Izagirre eta Alex Aranburu mugitu egin ziren, oso fuerte, eta ezinezkoa egin zitzaidan haien erritmoari eustea. Jaitsieran eta Otsondora bidean atzean geratu ginenok ondo moldatu ginen erreleboetan. Otsondon ere ondo

sentitzen nintzen, baina erritmo aldaketei erantzun ezinik. Jazar-penean gindoaizen dozena lagunetik bostek aurrera egin zuten, eta nik ezin. Cavagna, Arcas eta Benjamin Thomasekin geratu nintzen, eta nire buruari esaten nion: “Joder, ondo niek, ondo sentitzen nauk eta aukera ihes egiten ari zaidak!”. Errelebo on batzuk eman nituen, Arcasekin batera, eta berriro aurrekoak harrapatzea lortu genuen.

Eta behin aurrekoekin bat eginda, Odriozolak esandakoa, eraso jo ezustean.

Bai, hiruzpalau errelebori uko egin nion, atzetik etorri eta nekatuta nengoelakoan. Ur pixka bat edan, zerbait jan, eta eraso jo. Aldapatxo batean jo nuen, bukatzen ari zela. Agian ez zen unerik onena, baino ez ziren nire atzetik atera. Ziur aski aurrean zihuan taldetxo ez zen jabetu atzetik sartu ginela, eta sartu ginen lauretatik hiru ba nekatu samar joango ziren. Duda momentu hori baliatu nuen. Erritmo aldaketa horietan segundo batean despistatzen bazara agur, trenak ihes egiten dizu, eta akabo. Bakarren batek atzetik irte-tea espero nuen, bi edo hiru lagunek errazago egiten baitute bidea. Ez zen inor etorri eta 40 segundoko errenta lortu nuenean, sinesten hasi nintzen.

Herio batean egin zenuen azken tarte. Zuk zeuk, eta zure inguruko mundu guztiak. Epikoa izan zen neurrian, inguruko denak sentitu genuen tentsio berarekin egin al zenuen bide hori?

Mundu guztiak kontatu dit ikaragarri sufritu zuela azken 26 kilometro horietan... 10-15 segundo lortu ostean azken urteetako lesio eta miseria guztiez ahaztu nintzen, halako askatasuna sentitu. Pedalei eragitea, besterik ez neukan buruan, eta agian ulertzea zaila bada ere, baina herio horretan, sufrimendu horretan, disfrutatu egin nuen. Amets bat betetzen ari nintzen, Espainiako Vueltan lasterketa buruan egon, eta garaipena lortzeko aukerarekin. Momentuan disfrutatu egin nuen, hainbeste urtetan sufritu eta gero.

Nor zeuden autoan aginduak ematen? Xabier Muriel eta Jon Odriozola kirol zuzendariak.

Eta zer esaten zizuten, ze agindu eman?

Denetarik. Diferentziak, atzekoak nola zihoaizen, nor tiratzen, nor



Mikel Iturria, Xoxokan, Aiurri eskainitako elkarriketan. AIURRI

gordetzen... eta animoak ematen, etengabe.

Eta zuk, nora begiratzen zenuen?

Nik heldulekuan daukagun tramankuluari. Potentzia eta kadentzia erakusten dituen gailua jarri nuen, datuei erreparatu etengabe, eta segi, egurrean. Datuak onak ziren, eta nire buruari esaten nion: “Harrapatuko zidatek, baina eman beharko ziotek!”. Bidea ezin hobe ezagutzen nuen. Aldapatxo guztiak, bihurguneak, non estutu, non hauspoa lasaitu... dena!

Bide bazterrean zegoen jendea, senideak, ikusi zenituen?

Ikusi edo ahotsa ezagutu, bai, jabetu nintzen.

Hiru edo lau segundora ere egon ziren Howson eta Grmay, helmugatik kilometro eta erdira. Erreferentzia horiek eman al zizkizuten autotik? Ez, autoan lasterketa telebistan ikusten dute, baina segundo batzuetako atzerapenarekin. Ikusi zutenean, ez zidaten erreferentziarik eman, animoak bakarrik. Harrapatu izan bazintuzte, akabo, bizikleta harrika botako zenuen.

Ez uste. Normalena harrapatzea izango litzateke. Helmugatik 100 metrora harrapatzen duten ihesaldi klasikoa izan zen egun

horretakoa. Pena latza hartuko nuela ziur, baina sakrifizio asko egin ditut horrelako egoera batean egoteko. Ez garaipena lortzeko, lasterketa buruan egoteko baizik, eta gozatu egin nuen, benetan. **Noiz jabetu zinen, benetan, garaipena poltsikoan zenuela?**

Ba helmugatik 300-400 metrora. Pantaila handi bat zegoen, non lasterketa ikusten zen, eta hor jada sinesten hasi nintzen. Ziurtasunez 150 metrora. Maillota ixten saiatsu nintzen, Murias taldeari eskerrak emateko, baina kremailera trabatu egin zen, eta helmugara iritsi nahi nuen nola edo hala.

Bukaerako elkarriketetan oso sueltu aritu zinen, eta ez zara hitz askoko mutila.

Helmuga pasa eta berehala 15 mikrofono jarri zizkidaten ahoan, eta hegan bezala zaude, zer esan ez dakizula. Patxada hartu eta gero hobe sentitu nintzen. Es-

"URDAZUBIKO BIDEA ONDO EZAGUTZEN NUEN: ALDAPATXO GUZTIAK, BIHURGUNEAK..."

painiako TVE kateko Juan Carlos Rivero kazetariarekin hitzontzi samar aritu nintzen, baina badauka azalpena. Riverorekin etapa hasi aurretik egon nintzen, eta orain arte korritu ditudan bi Vueltatan ez gara topatu. Berak maite du Euskal Herria, beroa ez duelako oso gustuko, eta esan nion, gaur saiatuko naiz etapa irabazten, eta ttak! Helmuga osteko elkarriketan esan nion, hemen nago berriro! Zorte ona ematen dit, nonbait, Rivero kazetariak.

Noiz egon ahal izan zinen etxekoe-kin?

Amari telefonoz deitu nion, hotelera bidean, baina ez nire sakelakotik, ez bainekuan ondoan. Harrituta geratu zen. Aitarekin hotel atarian geratuta nengoen, gauza batzuk emateko. Besarkada xume bat eman genion elkarri, eta aurrera, hotz samarra naiz gauza horiek espresatzeko. **Juan Mari Guajardok Vueltako esatariak ere egin zizun, galdeketa, Vianako irteeran.**

Bai, tokatzen zen, eta han egon ginen hitz eta pitz. Vianan eta hurrengo egunetan fokuan zaude, arreta gehiago erakartzen duzu.

Uste duzu jendea, Urnieta, zaleak... konsziente ote gara zuk lortutako balentriarekin?

Beno, azkenean kirol bat baino ez da, ezta? Ez zaio sekulako garrantzia eman behar. Egia da World Tour proba bat dela, eta etapa bat irabaztea oso zaila dela. Datua irakurri nuen, gipuzkoar baten azken garaipena Vueltan orain dela 18 urte izan zen. Hausnarketa eragiteko modukoa.

Nik Euskadi Irratitik zuri elkarriketa egiteko deitu eta zure lehen hitzak “esan nizun ondo nengoela”, esan zenuen. Fedea bazeneukan.

Bai, Andorrako etapan ondo ikusi nuen nire burua. Egia da kazkabarra hasi eta aterpe batean bost minutu eman nituela lasai. Erlojupekoan ere ez nuen arris- kurik hartu, %90an joan nintzen. Urdazubi begiz jota neukan, eza- gutzen nuen ibilbidea eta dena ondo atera zen.

Gehien hunkitu zaituen gauzetako bat, Euskadi Irratiko Jon Altuna kazetariaren narrazioa, zure helmugaratzearekin Urdazubin. Jende askok ez daki, baina zuk eta Altunak elkarrekin korritu zenuten gazteago zinetenean.

Bai, hala da. Gau horretan entzun nuela uste dut. Bilatu eta entzun nuen, gauzarik politenetakoa

izan da, hotelera iritsi eta hori entzutea... Oraindik ere hunkitu egiten naiz, narrazio hori entzuten dudanean.

Eta han eta hemen esan eta idatzi direnen artean, zerekin geratzen zara?

Hainbeste gauza irakurri ditut, eta asko politak... Gustatu zait bi urte atzera nola nengoen nabarmendu dutela denek, denetatik jaiki egin naizela, eta saria etorri dela azkenerako. Zorte apur bat eduki behar da, noski, baina benetako garaipena ez etsitzea, borrokan jarraitzea da. Bueltatu egin naiz, eta lehen baino hobeto.

Zuk sufritu duzuna ez da samurra...

Ez, ez. Bi atake epileptiko jasan ditut, eskua hautsi, gero izterrezurra Limousingo Tourrean 2017an... Babes handia izan dut familia eta hainbat lagunengandik, fisioterapeutak eta beste. Saiatzen naiz sentimendu horiek ez kanporatzen, baina egia da erietxean-eta momentu txar samarrak pasatakoak naizela.

Garaipen honek zure etorkizuna argitzen du, ematen dizu kirol ibilbide bat osatzeko bermea.

Beno, bestela ere tropelean jarraituko nuen. Garaipenak bi urteko kontratu bat ematea espero dut, lasaitasun apur bat, baldintza ekonomiko hobeak. Eta Vueltan etapa bat irabazi izanak ez du esan nahi hurrengo urtean 10 irabaziko ditudanik. Garaipen honek etorkizuna argitzen du, ematen dizu kirol ibilbide bat osatzeko bermea.

Jendeak, kale bueltan, galdetzen du: Orain World Tour talderen baten eskaintza onen bat jasoko du, ezta? Egon al da, eskaintzarik? Nahi al duzu, World Tour mailako talde batean korritu?

Niregan konfiantza duen talde batean korritu nahi nuke, garaipenak lor ditzakedala sinesten duen proiektu bat. World Tour mailan akaso baldintza ekonomikoak hobeak dira, baina zure jarduna ezkutuan gera liteke. Nahiago dut talde apalago batean korritu, protagonismoa edukitzen saiatzeko, protagonista izateko aukerarik emango ez didan taldea baino. World Tour talde batean korritzeko atea zabalik daukadalda uste dut, oraindik.

Eta noiz jakingo dugu, 2020an zein taldetan ariko zaren? Laster, noski. Hala espero dut. Gauza batzuk zehazteko daude.

Baina lotuta daukazu.

Bai, ondo bideratuta.



Nagore Huizi andoaindarra Urnietako taldean ari da. AIURRI

"Urnietako taldea berezia da niretzat"

NAGORE HUIZI URNIETA KE TALDEKO JOKALARIA

FUTBOLA Andoaindarrak lau urte daramatza UKeko futbol taldean jokatzeko. Igoera lortu duen senior mailako erreferentia izatera iritsi da. Zelaian, eta zelaitik kanpo

Mikel Arberas ANDOAIN

Igoera lortu eta gero, denboraldiaren hasiera ez da erraza izan...

Maldan behera hasi gara, partida txarrak jokatu. Añogaren aurkako partidaren hobetu genuen, norgehiagoka ondo hasita. Arestian esan bezala, oso gaizki hasi dugu liga, baina pixkanaka gure maila erakusten ari gara.

Maila hauetara iritsita, aldaketa izugarria da. Aurreko denboraldian, hein handi batean, esperientzia gehien zuen taldea osatu genuen. Horri esker, talde

izaera nabarmen lantzea lortu genuen.

Lehenengo urteko eta aurtengo denboraldiaren arteko ezberdintasunak zenbateraino dira handiak?

Hasteko, talde gehiago daude lehian. Aurreko denboraldian 12 taldeko bi multzotan banatuta geunden. Egun, 16 talde gaudela elkarren aurka lehiatzen. Maila aldetik ere izugarri nabaritzen da, beste kategoria bat dela ikus daiteke; erritmoa, exijentzia..., guztia aldatzen da. Hala ere, urtero arazo bera dugu,

denboraldia jende askorekin abiatzen dugu, baina ikasketak direla medio, jokalaria ikastetara eta bizitzera kanpora joaten dira. Gauzak horrela, asteroko martxari eusteko lau katu gelditzen gara.

Horrez gain, jende berria batu da taldera eta, beraz, oraindik taldea osatzen ari gara.

Aurtengo denboraldirako zein helburu dituzue?

Ilusioarekin gaude eta mailari eutsi nahi diogu. Oso zaila da Euskal Ligan aritzea, beraz, gure

helburua oraingoz mailari eustea izango da.

Gutxienez, ondo pasa nahi dugu, taldekideon artean ezagutu eta, batez ere, futbolaz gozatu. Horretaz gain, sufritzea egokituko zaigu, baina futboleko gustura jokatuz gutxiago sufrituko dugula pentsatzen dut.

Eskarmentu handiko jokalaria izanik, ardura berezia duzu taldean?

Urnietan futboleko hasi nintzeanean taldeko gazteena nintzen eta orain zaharretarikoa naiz. Kapitainen taldean nago, Marta Ollakarizketa eta Ane Dominguezekin batera. Nire ustez, bakoitzak uste duena egin behar du, ez da ardura bat.

Gure kasuan, lehen partidak kaskarrak izan direla eta, gogobetuta egin gara apur bat. Hala ere, taldea batzen duen horietakoa naizela uste dut; niri asko gustatzen zait guztiekin hitz egitea, baita entrenatzaileekin ere. Oso garrantzitsua iruditzen zait taldekide guztien arteko komunikazioari eustea.

Taldea bat eginda al dago?

Orokorrean, bai. Egia da jokalaria berriak etorri direla eta ondo integratzen ari direla. Baina ez da erraza talde guztiz bateratua lortzea. Dena dela, gure artean harreman ona dago eta ez dugu inor baztertzeko. Entrenatzaileekiko harremanak ere pauso bat gora egin du. Aurten hiru entrenatzaile ditugu, eta seriotasun maila igo dela nabari da.

Andoaindarra izanik, zer suposatzen du Urnietako futbol taldeko parte izateak?

Duela ez asko Euskaldunatik deitu zidaten, senior mailan jokatzeke. Izugarrizko ilusioa egin zidan. Baina duela lau urte Urnietan jokatzeko hasi nintzeanean jende, talde eta esperientzia berriekin egin nuen topo.

Oso pertsona irekia naizenez, eta jendea ezagutzea gustuko dudanez, Urnieta KE taldea hasieratik berezia izan da niretzat. Horregatik, nire eremuan, nire lagunekin, oso gustura sentitzen naiz. Nire betiko taldea denaren irudipena daukat. Taldeak aurrera egiten badu, UKEn jarraitu nahiko nuke.

"UMEEN KIROL ERREFERENTEA EMAKUME BAT IZATEA OSO GARRANTZITSUA DA "

Emakumezkoen kirola asko nabarmendu da azken urteetan...

Asko nabarmendu da, bai. Emakumezkoen futbolak denbora gutxian izugarrizko igoera ezagutu du. Ikusleak konturatu dira emakumeek maila handia dutela. Horren harira, jendea mugitzen hasi da eta emakumezkoen futbolak garrantzia eta ikusmina irabazi du. Adibidez, asteburuko Errealaren eta Athleticen arteko partida izugarria izan zen, 28.000 pertsona inguru gerturatu ziren, eta nik uste dut horrek zerbait esan nahi duela.

Gure taldeak emakumezkoen futbolaren alde egiten du; Errealak jokatzen duenean askotan taldekoak eta entrenatzaileak ikustera joaten gara: batetik, gure taldea animatzeko; eta bestetik, erreferenteak izan daitezkeen jokalariez ikasteko.

Nire erreferentia, esaterako, Sandra Ramajo Errealeko defentsa da. Betidanik jokalaria beterranoa izan dela iruditzen zait, izugarrizko indarra eta gogoia erakusten baitu. Zelaian beti erakutsi izan du grin hori. Umeen erreferentia emakume bat izatea oso garrantzitsua da, bai futboleko eta baita beste edozein esparrutan ere.

Umeentzako erreferenteak izan zaitezketela uste duzu?

Ez dakit erreferenteak izan gaitzekin edo ez, baina ez da galdutako behar inoiz ilusioa. Jokatzeko hasten ez bazara, ez duzu inoiz jakingo futbolaria izango zaren ala ez, aurrerapausoa eman gabe ez duzu inoiz jakingo. Aurrerapausoa emanda ere, oso zaila da gorengo mailan emakume futbolaria izatea.

Nik unea baliatzeko esango nieke gazte horiei, lagunekin harremanak estutzeko eta kirola eginez gozatzeko. Kirolean gauza politak lortu daitezke, hala nola talde zoragarri bat, lagun bikainak eta giro paregabea. Elkarren artean sortzen den giroa eta harreman estuak dira jasotzen ditugun opari hoberenak. Zelaitik kanpo giroa ona bada, zelaian ezin hobea izango da.

"ONDO PASA NAHI DUGU. TALDEKIDEON ARTEAN EZAGUTU ETA, BATEZ ERE, FUTBOLAZ GOZATU"

Iristear da garaipena

ESKUBALOIA Igoera lortu eta gero, UKE taldeak bazekien ez zela partida errazik izango. Eta nahiz eta kopuruz talde txikia izan, urnietarrak maila ematen ari dira. Hondarribiaren aurka partida ia-ia irabaztea lortu zuten. Azken minutuetan ihes egin zien garaipenak (28-26). Asteburuan, etxeko partidari iritsi daiteke desio eta merezi duten garaipena.



UKE

Gipuzkoako txapelketa

LARRUZKO PALETA Gipuzkoako txapelketako partidak jokatu dituzte Gazteleku taldeak, Urnietako pilotalekuan. Ostiral honetan izango da, iluntzeko 19:00tan hasita. Biak ala biak, senior mailakoak dira:

- 2. maila, finalurrekoa: Gazteleku-Txost Oiartzun.
- 1. maila, mailari eusteko: Gazteleku-Euskal Jolas Deba.



GAZTELEKU

Iparraldeko ligaxkan

TRINKETEA Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola bikoteak Iparraldeko txapelketan bigarren mailara igoztea lortu du. Bardosen jokatu zen partidari 38-40 irabazi zuten. Pixkanaka hobetuz joan beharko dute, desiratutako igoera eskuratzeko. Goi mailako pilotariekin jokatzeko litzateke euren nahia; lehen mailan aritzea.



UKE

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA		
Bergara-Euskalduna	1-1	

SAILKAPENA

1	Urola	12 puntu
2	Anaitasuna	12 puntu
5	Euskalduna	8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Euskalduna-Anaitasuna / Ig, 20

NESKAK, 0. ERREGIONALA		
Añorga-Urnieta	2-0	

SAILKAPENA

1	Arizmendi	12 puntu
11	Urnieta	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Urnieta-Urola / Lar, 19

ERREGIONAL PREFERENTE		
Urnieta-Deusto Donostia	0-0	

SAILKAPENA

1	Vasconia	12 puntu
12	Urnieta	5 puntu

1ª ERREGIONAL MAILA		
Euskaduna-Anaitasuna	0-1	

SAILKAPENA

1	Anaitasuna	13 puntu
4	Euskalduna	7 puntu

PREFERENTE NESKAK		
Iruñi Bosteko-Euskalduna	4-4	

SAILKAPENA

1	Añorga	12 puntu
2	Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Euskalduna-Intxaurdi / Lar, 19

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA		
Euskalduna-Touring	3-2	

SAILKAPENA

1	Euskalduna	13 puntu
2	Hondarribia	12 puntu

JUBENILEN 1ª MAILA		
Billabona-Euskalduna	1-2	
Urnieta-Segura Goierri	5-4	

SAILKAPENA

1	Danena	12 puntu
2	Urnieta	12 puntu
5	Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna-Urnieta / Lar, 19

KADETE, A MAILA		
Sporting de Herrera-Urnieta	3-1	

SAILKAPENA

1	Euskalduna	12 puntu
2	Lengokoak	12 puntu
7	Urnieta	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Urnieta Astigarraga / Lar, 19

KADETE, B MAILA		
Urnieta-Usurbil	2-4	
Antigua Luberri-Euskalduna	8-3	

SAILKAPENA

1	Santo Tomas Lizoea	15 puntu
5	Urnieta	3 puntu
6	Euskalduna	3 puntu

KADETE NESKAK

Euskalduna-Danena	2-3
Intxaurdi-Urnieta	2-1

SAILKAPENA

5	Euskalduna	4 puntu
8	Urnieta	0 puntu

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK		
Hondarribia-Urnieta	28-26	

SAILKAPENA

1	Corazonistas	8 puntu
13	Urnieta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta-Ugeraga / Ig, 20

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

1	Txingudi	6 puntu
3	Leizaran	4 puntu

SAILKAPENA

17:45	Leizaran-Legazpi / Lar, 19	
-------	----------------------------	--

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK

1	Urnieta	6 puntu
4	Leizaran	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Leizaran-Egia / Ig, 20

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK

1	Eibar	6 puntu
1	Leizaran	6 puntu
2	Urnieta	4 puntu

SAILKAPENA

1	Leizaran	6 puntu
3	Urnieta	4 puntu
7	Leizaran Horia	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:45 Urnieta-Amenabar / Lar, 19

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK		
1	Leizaran	6 puntu
3	Urnieta	4 puntu
7	Leizaran Horia	0 puntu

SAILKAPENA

1	Urnieta Iñaki Mecanizados	2 puntu
4	Leizaran	2 puntu
4	Leizaran Horia	2 puntu
5	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:45 Leizaran Horia-Urnieta / Lar, 19

ESKUBALOIA		
1	Leizaran	6 puntu
3	Urnieta	4 puntu
7	Leizaran Horia	0 puntu

SAILKAPENA

1	Leizaran	6 puntu
3	Urnieta	4 puntu
7	Leizaran Horia	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:15 Euskalduna - Aurrera / Lar, 19

LIGA, 1. JARDUNALDIA		
Herrikide - Euskalduna	9-7	

ASTEBURUKO PARTIDA

16:15 Euskalduna - Aurrera / Lar, 19



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 17

URNIETA Ate irekiera

Gurasok bertako espazioa, funtzionamendua eta hezitzaileak ezagutzeko aukera izango dute. Urriaren 17a, azken eguna.

17:00-19:00, Udal Ludoteka.

ANDOAIN Ez ohiko plenoa

Udalaren aparteko batzarraldia.

19:00, Udal batzarraldi aretoa.

ANDOAIN Erakusketa

"Eremuak-Harriak", erakusketa martxan dago.

Erakusketa gela. Bastero.

ANDOAIN Lehiaketa

2020ko Udal egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan dago. Parte hartzeko aukera dago, datorren azaroaren 4ra bitarte. 100 euroko 12 sari banatuko dituzte.

Informazioa: Udal Artxiboa.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Dantza

Kukairen "Erritu" dantza ikuskizuna.

21:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 19

URNIETA Deialdia

Zaborra biltzeko deialdia. Magale ikastetxeko bi ikasleren ekimenez. Azaroan bigarren hitzordua egingo dute.

10:00-12:30, San Juan plaza.

URNIETA Zinema eta antzerkia

Gipuzkoako zine eta ezgaitasun zinemaldiaren II. edizioa Urrietara iritsiko da. "Me llamo Gennet" filma eskainiko dute, lehenik. Eta, ondoren, "Signos encadenados" antzezlan. Bigarren ekitaldia 20:00tan hasiko da

17:30, Sarobe.

IGANDEA 20

URNIETA Antzerkia

"Giza gorputzaren erdigunera bidaia", Spasmo Teatroren eskutik. Familia guztiari zuzendutako ikuskizuna.

18:00, Sarobe. 3 euro.



Unai Mendizabal zizurkildarra kantuan arituko da. AIURRI

ANDOAIN Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final-laurdenera iritsi da. Bertsozale Elkartek saioetako bat Andoainean antolatu du, arratsaldeko 17:00tan Basteron hasiko dena. Irun, Eibar eta Azpeitian ospatuko dira beste hiru final laurdenak.

Andoaingo saioan honako bertsolariak arituko dira kantuan: Iñaki Apalategi, Asier Azpiroz, Beñat Iguaran, Eñaut Martikorena, Unai Mendizabal eta Iban Urdangarin.

17:00, larunbata 19. Bastero.

OSTIRALA 25

URNIETA Ipuin kontaketa

Urriatik abendura bitarte, hilabete bakoitzean bi saio eskainiko dituzte. Ixabel Agirresaroberen eskutik.

17:30, Ludoteka.

ANDOAIN Lehiaketa

"Gomendatzen dizut..." bidaiei buruzko lehiaketan parte hartzeko azken eguna. 12-18 urte arteko gazteei zuzendutako lehiaketa da. Saria azaroan banatuko dute.

Gazte Informazio bulegoa.

LARUNBATA 26

ANDOAIN Ikuskizuna

Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsa eta Punttuka bertso eskolako kideek erakustaldia eskainiko dute. Ondarearen Europako jardunaldiaren baitako hitzordua da.

17:00.

ANDOAIN Ospakizuna

1974. urtean jaioetakoak.

Egun osoan zehar.

IGANDEA 27

ESKUALDEA Ordu aldaketa

Neguko ordutegi aldaketa. 03:00tan 02:00ak ipini behar da.

03:00, Europar Batasuna.

URNIETA Bazkaria

Beterri-Buruntzako eta Toloserriko odol-emaileen bilkura. 13:15etan harrera egingo zaie odol-emaileei, eta 13:30ean domina banaketa. Aurten, besteak beste, ehun alditan odola eman duten Begoña Vicente urnietarrak eta Joxe Mari Tolosa andoaindarrak domina jasoko dute.

14:30, bazkaria Oianumen.

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Aigua" ura ardatz duen dantza ikuskizuna, familia osoari eskainia.

17:00, Bastero. 4 euro.

ASTEARTEA 29

ANDOAIN Solasaldia

"Zure hatzaren ez galtzeko" literatur solasaldia Andoainean, Itxaro Borda egilearen beraren parte hartzearekin. Literatur solasaldiak zikloaren baitan.

19:00, Basteroko bilera gela.

ZINEMA

**ANDOAIN****ZINEMA****Downton Abbey**

Lar, 19: 22:00.

Ig, 20: 19:30.

Astl, 21: 19:30, 22:00.

Manou


Lar, 19: 17:00.

Abuelos

Lar, 26: 19:30, 22:00.

Ig, 27: 19:30.

Astl, 28: 19:30, 22:00.



SINOPSIS

**Manou**

Zuzendariak: Christian Haas eta Andrea Block. **Herrialdea.:** Alemania (2017). **Generoa:** Animazioa, komedia. **Iraupena:** 89 min. **Hizkuntza:** Euskara. **Ekoiztetxea:** Luxx film.

Saio bakarra, eta euskaraz

Manou txikia kaioekin hazi da. Taldeak hegoalderanzko bidaia egin behar du, eta atzean ez geratzeko asmoz, Manou gogor saiatzen da hegan egiteko teknikak ikasten eta hobetzen. Baina inguruko enaren bidez ohartuko da bera elai bat dela,

eta oso bestelako ezaugarriak eta bizimodua dituztela bera bezalakoei.

Erabaki gogorra hartu beharko du orduan: familiazat duen kaio taldearekin jarraitu, ala enaren bandora jauzi egin. Alemanian ekoiztutako filma.

"Gomendatzen dizut..." lehiaketa

Gazte Informazio Bulegoak 12-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketaren edizio berria antolatu du. Xedea udako edo porraldiko informazio interesgarria partekatzea da. Antolatzaileek deialdiaren berri eman dute, ohar bidez: "Gazteek irteera bat egiten dutenean edo oportetara joaten direnean, lekuei buruzko informazio interesgarri askorekin etortzen dira, informazio hau gurekin konpartitzea nahiko genuke gomendio moduan. Guretzat, edozein gomendio baliagarria da, ostatu ingurukoak, lekuak, herriak, museoak, jatetxeak, ekintzak, paisaia ikusgarriak eta abar".


Lehiaketan parte hartu nahi duenak gomendatzeko bi arrazoi idatzi behar ditu, eta argazki bat itsatsi.

Gomendioak aurkezteko epea datorren urriaren 25ean amaituko da. Ondoren, "gomendio guztien artean zozketa bat egingo da azaroaren 8an. Eta guztiak ikusgai izango dira, azaroan zehar, Gazte Lokalean".

Saria honakoa da: Andoaingo denda desberdinetan erosketak egiteko 70 euroko bonoa.

Gomendioak Gazte Informazio Bulegoan aurkeztu behar dira (Pio Baroja kalea 1, beheka), edo posta elektronikoz bidali (gazteinformazioa@andoain.eus).

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Ane Muñoz
Ane Muñozek 5 urte beteko ditu urriaren 28an. Jarraitu orain arte bezain zoriontsu!!!



ANDOAIN
Maren Aranburu
Eskuetako hatz guztiak beharko dituzu urteak batzeko. Behar den bezala ospatu. Etexkoak.



ANDOAIN
Eukene
Urriaren 15ean bete zituen urteak. Muxu potoloa etxekoen eta adiskideen partez. Segi beti bezain jator!



ANDOAIN
Jon eta Oier "Pitti"
Urriaren 14ean Jonek 24 urte bete zituen, eta 21ean Oierrek 17. Jarraitu jator, eta gozatuz bizitzaz. Besarkada eta muxu potoloak etxekoen partez, politak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus
Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 19 eta igandea 20
MONFORT: Aita Larramendi, 26.
943 300 913 Andoain.

URNIETA
Larunbata 19 eta igandea 20
CASTILLA: Urbietta, 7.
943 552 941 Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

"Erritu" dantza ikuskizuna Basteron

Jon Maya dantzariak gidatuta, Kukai dantza taldeak ikuskizun berria taularatuko du ostiralean. Dantzari lanetan Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena arituko dira. Kantuan, berriz, David Azurza

Erredakzioa ANDOAIN

Bizitza bera bidaiaren metaforatzat hartuta, Kukai dantza taldeak ikuskizun berriena horrela aurkezten du: "Erritu" bizi-bidaia bat da. Errituak zubi modukoak dira gure izate bana-koaren eta esperientzia kolektibo erritualizatuaren arteko loturen zentzua aurkitzeko. Gure izate banakakoa iraganaz, orainaz, etorkizuneko promesaz eta aukeraz zamaturik dago. Esperientzia kolektiboa, berriz, erreferentzia da beti, baina mugitzen eta aldatzen ari da aldi berean. Aurrerapena, ikusleentzat. Aretora sartu orduko, dantzariak taula gainean izango dira.



"Erritu", Kukai taldearen kantu eta dantza ikuskizuna. KUKAI

Urnietako Guraso Eskolan izena emateko epea luzatu dute

0-16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoen hezitzaile papera indartu nahi dute

Erredakzioa URNIETA

Urriaren 18ra arteko epea dago, izena emateko. Udalak, ohar bidez, eskolaren aztergaiak aurreratu ditu: "Landuko diren gaiek lotura izango dute adin

ezberdinetako seme-alaben ezau-garriekin; heziketarako joerak eta jarraibideak, maitasuna, komunikazioa, garapenaren estimulazioa eta gatazken bideraketak, guraso bezala haien buruaz

duzen pertzepzioa nola hobetu, haien gaitasunetan duten konfiantza areagotu, eta eguneroko estresa bideratzeko baliabideak handitu, besteak beste".

Honako taldeetan eta ordutegian eman daiteke izena:

- 7-11 urte: astearte bat hilean 17:30-19:30 (gaztelaniaz).
- 12-16 urte: asteazken bat hilean 18:00-20:00 (gaztelaniaz).

Matrikularen prezioa 25 eurokoa da. Bertan udal arreta zerbitzuan eman behar da izena.



"Giza gorputzaren erdigunera bidaia" euskaraz taularatuko dute.

Familia osoarentzako haur ikuskizuna Saroben

"Giza gorputzaren erdigunera bidaia", igande honetan arratsaldeko 18:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Spasmo Teatro konpainiak haur ikuskizuna eskainiko du Urnietan, euskaraz. Ikuslegoari bidaia bat proposatuko diote, giza gorputzaren erdigunera Horrela dio, sinopsiak: "Zer gertatuko litzateke pertsona baten barruan

sartzeko bezain txikiak bagina eta ikasten dugun bitartean abentura sineztezina biziko bagenu? Ongietorriak gure gorputzean zehar doan bidai liluragarri honetara. Gure gorputza makina perfektu bat da". Sarre-rak dagoeneko salgai daude.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Jabekuntza eskola Urnietan. AIURRI

Abiatzear da jabekuntza eskola Urnietan

Bost ikastaro ezberdin antolatu dituzte, eta izena emateko epea zabalik dago urriaren 31 bitarte

Erredakzioa URNIETA

Autodefentsa feminista, hilekoaren zikloaren erritmoa, asertibitate eta jabekuntza, maskulinitatea eta zaintza dira Urnietako Udalak ikasturte honetarako eskainiko dituen ikastaroak. Udalak zabaldu duen oharrean esperientzia partekatzearen garrantzia nabarmendu du: "Esperientziak eta jakintzak partekatzea da gakoa, baina, baita ere, gorputzaz disfrutatzea. Azken finean, munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun, eta aldi berean, mundua aldatzeko tresnak emango dizkigun esperientzia bat". Lehen bi ikastaroak laster abiatuko dira.

Autodefentsa feminista

16 urtetik gorakoentzat, Emagin elkartearen eskutik. Hastapeneko saioa azaroaren 23an izango da, Saroben. Goiz osoko jardunaldia izango da. Azaroaren 30ean ikasitakoan sakonduko dute.

Hilekoaren zikloa

Azaroaren 7an hasi eta abendua- ren 5a bitarte, ostegunero elkartuko dira Saroben. 18:30ean hasi eta 21:30ak arte. Ahinitz Gerrikagoitia izango da irakaslea.

Izen-ematea Bertan bulegoan, Lekaion edo webgunean bertan egin daiteke.

AZKENA

Berriro elkartu nahi dituzte

Irudikoak Aita Larramendi ikastolako lehen ikasturteko irakasleak eta ikasleak dira. 1963an ateratako argazkia da, eta ikastolak argazkikoak identifikatzeko laguntza eskatu du. Datorren azaroaren 9an argazkikoak elkartzeko asmoa dute



1963an ateratako argazkian ikasle taldea ageri da, Mirari Ugalde eta Mari Paz Artolazabal andereñoekin batera. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

1963koa da argazkia, Aita Larramendi ikastolako historiako lehen ikasle taldearena. Bi andereñoak

Mari Paz eta Mirari dira. 56 urte eta gero, ikastolak protagonista berdinekin argazkia berriro atera nahiko luke. Datorren azaroa-

ren 9an, larunbatarekin, Bazkardoko eraikin berrian egingo den ekitaldian argazkia atera nahi dute. Guztiekin harremanetan

jartzeko laguntza eskatu dute: "Argazkian zure burua ikusi baduzu, edo norbait ezagutuz gero, mesedez jarri kontaktuan".

Ondarreta ikastetxearen urteurrena iristear da

Ikasturte honetan iritsiko dira 50. urteurrenena. Ekitaldi nagusiak udaberrian egingo dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Ondarreta ikastetxeak 50. urteurrena ospatuko du 2019/2020. ikasturtean zehar. Ospakizun sorta antolatzen dabiltza, datorren udaberriko: Erakusketa, irteerak, jaia... Bitartean, ikas-

turtean zehar, ekintza txikiak egiten ari dira. Besteak beste, argazkian jaso duten mosaikoa. Joan zen astean ikasle taldea elkartu zuten ikastetxeko jolas-toki estalian, efemeridea irudi bidez gogorarazteko.



Ikasle taldea Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. ONDARRETA